

BA AL ZENEKIEN PLAZAOLA BIDE BERDEAK
EUROPAKO TRAIL GAZERS PROIEKTUAN
PARTE HARTZEN DUELA?

HERRITARRENDAKO INKESTA



TrailGazers Europako "Interreg Eremu Atlantikoa" Programaren proiektu bat da, eta diseinatutako ibilbideetan egindako inbertsioek gizartean eta ekonomian duten eragina aztertzen du, besteak beste, turismo, aisialdia, eta kirol erabilera lotutako helburuetarako.

10 ERAKUNDE BAZKIDE

Irlanda eta Kanariar Uharteak barne

HAIEN ARTEAN, PLAZAOLA

8 IBILBIDE PILOTU

Atlantiko ozeanoko ertz osoan
banatuta

Horrelako ibilbideak garapen-eragile garrantzitsuak izan daitezke zeharkatzen dituzten eskualdeetan; aukera eman baitezakete lurraldeak modu jasangarrian suspertzeko.

HELBURUAK

Ingurua, bidearen erabiltzaileak eta horiek eremuan egiten duten gastua aztertuz eta zuen guztien parte-hartzearen bidez, proiektuak informazio handia biltzen du, honako hauek ahalbidetzen dituena:

- Kudeaketa eredu jasangarriak eta eraginkorrak proposatzea bideetarako eta haien inguru hurbilerako.

- Bide horiek (besteak beste, Plazaola) modu erakargarrian sustatzea, **lurraldean bertan lantzen den eskaintzaren** bidez. Horrela, tokitik bertatik, Plazaola proiektatzen da nazioartean, proiektuko gainerako erakunde bazkideekin sortutako sinergiak aprobetxatuz.

ZER EGITEN ARI GARA PLAZAOLA BIDEAREN INGURUAN?

2020. urtearen hasieratik, datu-bilketa zabala egiten ari da, bideko kontagailuen bidez, inguruko negozio txikiei eta bidearen erabiltzaileei egindako inkestaren bidez, bidearen mantentze-gastua berrikusiz eta abar.

Eta orain bidearen inguru hurbilenean bizi zaretenon iritzia ezagutu nahi dugu.



HERRITARRENDAKO INKESTA



Herritarrei egindako inkesta horiek proiektuaren helburuetan laguntzen digute, eta, zehazki, bide berdearen eraginaren analisiaren eta diagnostikoaren parte dira. Asko eskertuko genizuke zure parte-hartzea. 7 galdera baino ez dira, eta minutu pare bat besterik ez dizute kenduko. Esteka:

<https://survey123.arcgis.com/share/9476fd04f9c0482db4167d063882d254>

Animatu eta parte hartu!

GOZATU PLAZAOLAZ

Proiektua beste jarduera erakargarri batzuk ere garatzen ari da: Ikusi duzu Plazaolaren bideoa? Ikusi duzu Plazaola bide berdea, 360°-tan erabat digitalizatuta, Googlen? Izan zara ETEekin ondareari edo prestakuntzari buruz egin dugun jardunaldiren batean? Gozatu Google Arts and Culture bidez egindako bidaia birtualaz, hurrengo tailerrak prestatzen ditugun bitartean.

ESKERRIK ASKO! ZURE LANKIDETZAK POSIBLE EGITEN DU PROIEKTU HAU

BISITA GAITZAZU HEMEN: WWW.TRAILGAZERS.EU

<https://www.youtube.com/watch?v=EZvnBHsOmQs>

